

Zumaian

2015eko ekainak 1-7

Bertakoa Slow Astea

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra

"Zumaian, bertako Hitzak" hitz bilketa egingo da, Zumaian bakarrik erabili ohi diren hitz edo esamoldeak jasotzeko. Parte-hartzaileen artean "2 Slow, bertako menu" eta "10 Slow, bertako pintxo" zozkatuko dira ekainaren 3ko aurkezpenaren ondoren.

Asteazkenean "Zumaian, bertako Dendak" kanpainaren barruan Zumaia Elkarteke txartelarekin ordainduz ezusteko sariak emango dira Elkartean dauden dendetan.

Ekainak 1, astelehena

17:30ean Ludotekan "Zumaian zer dugu?" Jokoa.

Ekainak 2, asteartea

10:30ean Herri Eskolan eta Maria eta Jose Ikastetxean "Zumaian, bertako Gosaria" ekimena, eskualdeko ekoizleen eta URKOMERen eskutik.

Ekainak 3, asteazkena

17:00etan Forondan "Zumaian, bertako Ekoizleak" ekoizle eta ostalarien arteko topaketa, "Urola Gustagarri" ekimenaren eskutik.

19:00etan "Zumaian, bertako Ondarea": Alondegian "Industrigintzaren hastapenak Geoparkean: Zementugintza Zumaian" bideoaren aurkezpena eta "Zumaian, bertako Hitzak" hitz bilketako parte-hartzaileen arteko zozketa.

19:30ean "Itsaslapur eta merkatarien istorio bat" doako bisita gidatua (euskaraz) Alondegitik hasita, Zumaiaiko itsas ondarea ezagutzeko. Izen ematea: Turismo Bulegoan.

Ekainak 4, osteguna

18:30etik aurrera "Zumaian, bertakoa" Pintxo Poteoa eta Kantu Poteoa.

Ekainak 5, ostirala

19:00etan Torreberri "Zumaian, bertako Basalandare Jangarriak" sukaldaritzaren erakustaldia.

Arratsalde-gauean bertako produktuekin egindako Pintxoak, Platerak eta Menuak eskainiko dira Zumaiaiko hainbat jatetxe eta tabernatan.

Ekainak 6, larunbata

Eguerdian nahiz **arratsalde-gauean** bertako produktuekin egindako Pintxoak, Platerak eta Menuak eskainiko dira Zumaiaiko hainbat jatetxe eta tabernatan.

Ekainak 7, igandea

10:00etan "Elikadura Jasangarria" Argazki Rallya Algorri Interpretazio Zentrotik abiatuta. Izen-ematea: Algorri Interpretazio Zentroan.

11:00etan hasita DANTZARI TXIKI EGUNA.

13:00etan dantzarien erakustaldia Eusebio Gurrutxaga plazan.

19:00etan Parrokian KUP abesbatzaren kontzertua.

Eguerdian bertako produktuekin egindako Pintxoak, Platerak eta Menuak eskainiko dira Zumaiaiko hainbat jatetxe eta tabernatan.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

